

2013-2014KO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Lehen Hezkuntzako 4. ikasmaila

Azken txostena

2014ko iraila

HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN ZERBITZUA
EBALUAZIO ATALA

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| 1. Sarrera | 4 |
| 2. Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna | 7 |
| 2. 1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa..... | 7 |
| 2. 2 Gaitasun mailak: esanahia..... | 9 |
| 2. 3 Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak..... | 10 |
| 2. 4 Emaiza orokorrak..... | 14 |
| 2.5 Puntuazioen banaketa | 17 |
| 2.6 Ekoizpen idatzia..... | 18 |
| 3. Euskarazko hizkuntza gaitasuna | 23 |
| 3.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa..... | 23 |
| 3.2 Gaitasun mailak: esanahia..... | 24 |
| 3.3 Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak..... | 26 |
| 3.4. Emaiza orokorrak..... | 30 |
| 3.5 Puntuazioen banaketa | 33 |
| 3.6. Ekoizpen idatzia..... | 34 |
| 4. Matematika gaitasuna | 38 |
| 4.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa..... | 38 |
| 4.2 Gaitasun mailak: esanahia..... | 39 |
| 4.3 Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak..... | 40 |
| 4.4. Emaiza orokorrak..... | 44 |
| 4.5 Puntuazioen banaketa | 47 |
| 5. Ingelesezko hizkuntza gaitasuna | 48 |
| 5.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa..... | 48 |
| 5.2 Gaitasun mailak: esanahia..... | 49 |
| 5.3 Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak..... | 51 |
| 5.4. Emaiza orokorrak..... | 55 |
| 5.5 Puntuazioen banaketa | 57 |

6- Aldagai sozioekonomiko etra kulturala (ISEKa)

| | |
|------------------------------|----|
| 6.1 ISEKa | 59 |
| 6.2 Erregresio-zuzenak | 61 |
| 6.3 ISEKaren banaketa | 66 |

1. Sarrera

Hezkuntzaren Lege Organikoaren 21. artikulua ezartzen du, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa bukatutakoan, ikasleek eskuraturiko oinarrizko gaitasunen gaineko ebaluazio diagnostikoa egiten dutela ikastetxe guztiek. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak izanen ditu:

- Zentsala izanen da, Lehen Hezkuntzako 4. ikasmilako ikasle guztiek egin beharrekoa.
- Oinarrizko gaitasunen gainekoa.
- Informatiboa, ikasleendako eta familiendako.
- Prestakuntzako, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2013-2014 ikasturteko ebaluazio diagnostiko zentsalean landu dira irakas-hizkuntzetako hizkuntza gaitasuna, matematika gaitasuna eta ingelesezko hizkuntza gaitasuna; probek erreferentzia gisa 2008-2009 ikasturtean argitaratu zen ebaluazioaren esparru teorikoa dute.

Errendimendu probak Ebaluazio Atalak prestatu ditu, irakasleek taldeka egindako lanetik abiatu. Beraz, kanpokoak izan dira ikastetxeendako, eta ikastetxe guztietan egun beretan aplikatu dira eta aurrez finkaturiko irizpideen arabera zuzendu dira.

Ekainaren hasieran ikastetxeek ikasleen emaitzak jaso zituzten, ikasle bakoitzaren txosten bat egiteko helburuarekin. Txosten horren berri eman zitzaion familiei ikasturtea bukatzean.

Egun beretan, ikastetxeek Educa aplikazioaren bitartez txosten osoa eskuratu zuten. Hartan honako datu estatistiko hauek agertzen dira: batez besteko puntuazioa, desbideratze tipikoa, gaitasun mailaren arabera ikasleen banaketa, itemetan zuzen erantzundakoen ehunekoak, talde edo gela bakoitzeko batez besteko puntuazioa eta errendimenduaren eta ISEK aldagai sozioekonomikoaren arteko erregresioari buruzko informazioa. Ebaluaturiko gaitasunaren arabera informazioa tauletan eta grafikoetan eman zen.

Txosten hau aurretik emandako informazioa osatzera dator. Ikuspegi orokorragoa ematen dio, ikasle guztiak eta proben ezaugarriak ardatz gisa harturik. Txosten honetan garrantzi handia du gaitasun mailen esanahiak, itemak gaitasun maileri atxikitzeak (mailaketa) eta ebaluaturiko prozesua item bakoitzarekin identifikatzeak. Ikasleen puntuazioaren banaketa islatzen duten histogramak aurkeztu eta banaketa normalarekiko konparazioa egiten da.

Eta ataletako batek ikastetxeen batez besteko errendimenduaren eta ISEKaren batez besteko balioaren arteko korrelazioa aztertzen du. Gaitasun bakoitzari dagokion erregresio-zuzena irudikatzen da eta horri esker ikus daiteke zenbateko inpaktua edo eragina duen aldagai sozioekonomiko eta kulturalak ikastetxeen batez besteko errendimenduan.

Ebaluazioaren izaera zentsala

2013-2014 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 4. ikasmilako matrikula, osotara, 6.764 ikaslekoa izan zen. Ikasle horiei zuzendu zaie ebaluazio diagnostikoa. Ebaluazio orotan bezala, kontuan izan behar da gerta daitekeela ikasle batzuek ezintasun tekniko bat izatea probak beharrezko baldintzetan egiteko. Hori dela kausa, hiru salbuespen arrazoi ezarri ziren: *gure hezkuntza sisteman sartu berriak direlako (urtebete baino gutxiago) probaren hizkuntza ezagutzen ez duten ikasleak; Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroan (NHBBZ) zentsaturiko urritasun psikiko edo intelektuala duten ikasleak, edo probak egitea galaraziko duen mugimendu edo zentzumen urritasuna duten ikasleak.*

Egoera horiek kasuz kasu aztertu ondoren 202 ikasle salbuestsi ziren proba egitetik eta, azkenean, 6.562 ikaslek egin zituzten probak.

Ondoko taulan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren munta ikusarazten duten datuak:

Matrikularen eta parte-hartzearen datuak

a) Orokorrak

| | Lehen Hezkuntza 4. ikasmila | |
|--------------------------------------|--------------------------------|-------|
| | Kop. | % |
| Matrikula, osotara | 6.764 | 100 |
| Salbuetsitako ikasleak | 202 | 3 |
| Azken populazioa | 6.562 | 100 |
| Probak egin zituzten ikasleak | 6.515 | 99,3* |
| Bertaratu ez ziren ikasleak | 47 | 0,7* |

* Azken populazioarekiko ehunekoa

b) Ereduen arabera

| | A/G eredua | | B/D eredua | |
|--|--------------|-------------|--------------|-------------|
| | Kop. | % | Kop. | % |
| Matrikula, osotara | 4.866 | 100 | 1.898 | 100 |
| Salbuetsitako ikasleak, dagozkion irizpideak aplikatu ondoren | 172 | 3,5 | 30 | 1,6 |
| Azken populazioa | 4.694 | 96,5 | 1.868 | 98,4 |
| Bertaratu ez ziren ikasleak | 43 | 0,9 | 4 | 0,2 |
| Proba egin zuten ikasleak | 4.651 | 99,1 | 1.864 | 99,8 |

c) Gaitasunaren arabera

| | Proba egin dute Kop. - (%) | Ez dute proba egin Kop. - (%) |
|--|---------------------------------------|--|
| Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna | 6.507 - (%99,2) | 55 - (%0,8) |
| Euskarazko hizkuntza gaitasuna | 1.855 - (%99,3) | 13 - (%0,7) |
| Matematika gaitasuna | 6.499 - (%99) | 63 - (%1) |
| Ingelesezko hizkuntza gaitasuna | 6.490 - (%99,1) | 72** - (%0,9) |

** Horietako 11k Frantsesa ikasten dute Ingelesa beharrean

Salbuetsitako 202 ikasleetatik, batzuek probak egin zituzten, eta banakako txostena eskuratu zuten. Hori egiten ahal izan zen tutoreek pentsatu zutelako eskuratuko zen informazioak lagun zezakeela beren lan profesionalean, ikuspegi osagarri eta baliagarri bat izateko.

Txosten honetan emandako emaitza orokorretan (estatistikoak) ez dira kontuan izan ez ikasle salbuetsiak ez bertaratu ez zirenak.

2. Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna

2.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa

Probak bi zati izan ditu: irakurketa eta idazketa.

Irakurketak bi testu edo estimulu izan ditu, eta horietatik irakurmeneko ondoko galderak atera dira: “*Mi abuela Anni*” testutik 12 item atera ziren, eta “*Bichos...*” testutik 15 item.

Osozara izan diren 27 itemetatik 22k puntu 1eko balioa izan dute, 4k 2 puntukoa eta 1ek 3 puntukoa, eta kasu horietan puntuazio partzialak ere onartu dira.

27 itemei zegozkien atazek ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuekin dute lotura.

Itemen zailtasuna ez da beti bera izan; batzuk oso errazak gertatu dira (zuzen %95,1ek erantzundakoak) eta beste batzuk zailak (ikasleen %45,3k baino ez dituztenak zuzen erantzun).

Idazketaren zatian idazlan libre bat idatzi behar izan dute, pertsonak eta animaliak tartean diren istorio, abentura edo ipuin baten gainean.

Idazlanean funtsezko hiru alderdi hauek baloratu dira: *Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna*; denek munta bera izan dute puntuazio osoan.

Txosten honetako 2.6 puntuan idazketaren zatiko emaitzak ageri dira, modu berezian emanak.

Hizkuntza gaitasuneko puntuazio osoa lortu da irakurketako eta idazketako puntuazio osoak baturik; irakurketako puntuazioak 0,773ko pisua du eta idazketakoak 0,267koa.

Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: *tipologia (irekia edo itxia), emandako gehienezko puntuazioa, zailtasun-indizea eta ebaluaturiko prozesua*.

Ondoko taulan probako itemen ezaugarriak azaltzen dira, probako koadernotxoko ordena berean.

| Item zk. | Irekia/ Itxia | Gehienezko puntuazioa | Zailtasun-indizea: zuzen erantzundakoen %a | Ebaluatutako prozesua |
|----------|------------------|--------------------------|---|-----------------------|
| 1 | Itxia | 1 | 90,8 | Ulermen orokorra |

| | | | | |
|----|--------|---|------|---|
| 2 | Itxia | 1 | 95,1 | Interpretazioa |
| 3 | Irekia | 2 | 88,9 | Informazioa bilatzea |
| 4 | Itxia | 1 | 45,3 | Interpretazioa |
| 5 | Itxia | 1 | 79,1 | Interpretazioa |
| 6 | Itxia | 1 | 83,1 | Interpretazioa |
| 7 | Itxia | 1 | 87,2 | Informazioa bilatzea |
| 8 | Irekia | 1 | 81,1 | Edukiaren gaineko hausnarketa |
| 9 | Itxia | 1 | 61,7 | Ulermen orokorra |
| 10 | Irekia | 1 | 88,8 | Informazioa bilatzea |
| 11 | Irekia | 1 | 71,4 | Interpretazioa |
| 12 | Irekia | 2 | 80,0 | Edukiaren gaineko hausnarketa |
| 13 | Itxia | 1 | 79,3 | Ulermen orokorra |
| 14 | Itxia | 1 | 78,2 | Ulermen orokorra |
| 15 | Itxia | 1 | 86,4 | Edukiaren gaineko hausnarketa |
| 16 | Itxia | 1 | 66,1 | Informazioa bilatzea |
| 17 | Itxia | 1 | 88,8 | Interpretazioa |
| 18 | Irekia | 2 | 66,2 | Edukiaren gaineko hausnarketa |
| 19 | Itxia | 1 | 56,8 | Interpretazioa |
| 20 | Irekia | 1 | 63,5 | Interpretazioa |
| 21 | Irekia | 2 | 93,6 | Informazioa bilatzea |
| 22 | Irekia | 1 | 70,8 | Informazioa bilatzea |
| 23 | Itxia | 1 | 55,8 | Informazioa bilatzea |
| 24 | Itxia | 1 | 73,8 | Informazioa bilatzea |
| 25 | Irekia | 3 | 75,1 | Edukiaren gaineko hausnarketa |
| 26 | Irekia | 1 | 69,5 | Informazioa bilatzea |
| 27 | Itxia | 1 | 56,6 | Formaren gaineko hausnarketa |
| 28 | Irekia | 3 | 67,6 | Aurkezpena eta ortografia |
| 29 | Irekia | 4 | 67,2 | Istoriaren koherentzia |
| 30 | Irekia | 4 | 65,2 | Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna |

28., 29. eta 30. itemak ekoizpen idatzikoak (idazlana) dira.

2.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Hizkuntza gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 3+ MAILA |
|---|---|---|--|
| <p>Maila honetan dauden ikasleak gai dira narrazio edo azalpen testu bateko informazio erabat literala ulertzeko. Hala ere, zailtasunak dituzte interpretatzea, orokorrean ulertzea, hausnartzea eta baloratzea eskatzen duten galderei erantzuteko.</p> <p><i>Oro har, ikasle horien ekoizpen idatzien aurkezpena ez da ona, ez dute zinez barne koherentziarik eta komunztadura akatsak egiten dituzte.</i></p> | <p>Maila honetako 1. mailako zuzen erantzuten dituzte. Gainera, bilatzeko galderak ere ebazten dituzte, galderak ez direnean horren literalak eta egoera hobeki ulertzea eskatzen dutenean. Interpretazioko eta hausnarketako ataza errazak ebazten hasten dira.</p> <p>Hori hala izanik ere, zailtasunak dituzte narrazio edo azalpen testuak globalki ulertzeko, nolabaiteko sakontasunez interpretatzeko eta baloratzeko.</p> <p><i>Haien ekoizpen idatzietan, bost ortografia akats baino gehiago daude hamar lerroko.</i></p> <p><i>Testuaren barneko kohesioan akatsak izan ohi dira.</i></p> <p><i>Perpausen egitura oso oinarrizkoa da.</i></p> | <p>Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten dituzte informazio berreskuratzearekin loturiko galderak (informazio hori literala izan edo ez). Gainera, testua globalki ulertzen dute. Maila onargarria dute, edukiaren gaineko hausnarketari dagokionez. Gai dira testu bat baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko.</p> <p><i>Haien ekoizpen idatzietan bost ortografia akats baino gutxiago daude.</i></p> <p><i>Perpausak batzuk besteekin ongi kateaturik daude.</i></p> <p><i>Maila honetan jadanik ez dago komunztadura akatsik. Argi bereizten dira ahozko kodea eta kode idatzia.</i></p> | <p>3. mailako atazak zuzen egiten dituzte eta, horretaz gainera, ataza konplexuagoak egiteko ere badira gai.</p> <p><i>Haien ekoizpen idatzietan oso ortografia akats gutxi dago eta, orobat, tiletak zuzen erabiltzen dituzte.</i></p> <p><i>Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira.</i></p> <p><i>Maila hau aurrekotik bereizten da barneko kohesioko baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia.</i></p> |

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio globala erdiestea, hurrengo taulan adierazten den bezala:

| Gaztelaniako hizkuntza gaitasuna Puntuazio-tarteak | |
|---|-------|
| 1. maila | 0-23 |
| 2. maila | 24-29 |
| 3. maila | 30-40 |
| 3+ maila | 41-45 |

2.3. Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraientzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, zeren gainean hausnar daitekeen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua doitzeko.

Adibidez, 2. itema, interpretazio prozesu bat, erraza izan zaie ikasleen %95,1i; 14. itema ez zaie hain erraza izan, testua globalki ulertzea eskatzen zuen; 18. itema, edukiaren gaineko gogoeta egitea, nahiko zaila suertatu da; eta interpretazio prozesu bat planteatzen duen 4. itema zaila suertatu da oro har.

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta gutzitzkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta itemaren irekia/itxia izaera garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan. Ondoko irizpide orokor hauek erabili dira:

- Erantzun itxiko itema: M_x mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %62k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.

- Erantzun irekiko itema: M_x mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %52k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.

Hurrengo taulan erakusten da nola atxikitzen zaizkien itemak gaitasun mailai (mailaketa), baina modu kualitatibo eta orientatiboan interpretatu behar da, ez baitira beti betetzen aurreko bi baldintza horiek eta nola edo halako malgutasun bat onartu behar baita. Erantzun *partziala* edo *osoa* izan dezaketen itemak maila desberdinei atxikitzen zaizkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

| Item zk. | Mailaketa | Diskriminazio-indizea |
|-----------------|---|------------------------------|
| 1 | 1. maila | 0,16 |
| 2 | 1. maila | 0,23 |
| 3 | 1. maila | 0,17 |
| 4 | 3+ maila | 0,27 |
| 5 | 2. maila | 0,36 |
| 6 | 1. maila | 0,19 |
| 7 | 1. maila | 0,19 |
| 8 | 2. maila | 0,33 |
| 9 | 3. maila | 0,16 |
| 10 | 1. maila | 0,34 |
| 11 | 3. maila | 0,38 |
| 12 | 2. maila | 0,40 |
| 13 | 2. maila | 0,22 |
| 14 | 2. maila | 0,31 |
| 15 | 2. maila | 0,31 |
| 16 | 3. maila | 0,29 |
| 17 | 1. maila | 0,32 |
| 18 | 2. maila: puntu 1eko erantzuna 3. maila: 2 puntuko erantzuna | 0,45 |
| 19 | 3. maila | 0,33 |
| 20 | 3. maila | 0,33 |
| 21 | 1. maila | 0,36 |
| 22 | 3. maila | 0,37 |
| 23 | 3+ maila | 0,21 |
| 24 | 3. maila | 0,43 |
| 25 | 1. maila: puntu 1eko erantzuna 2. maila: 2 puntuko erantzuna | 0,44 |

| | | |
|----|---|------|
| | 3. maila: 3 puntuko erantzuna | |
| 26 | 3. maila | 0,38 |
| 27 | 3. maila | 0,37 |
| 28 | 1. maila: puntu 1eko erantzuna 2. maila: 2 puntuko erantzuna 3. maila: 3 puntuko erantzuna 3+ maila: 4 puntuko erantzuna | 0,61 |
| 29 | 1. maila: puntu 1eko erantzuna 2. maila: 2 puntuko erantzuna 3. maila: 3 puntuko erantzuna 3+ maila: 4 puntuko erantzuna | 0,66 |
| 30 | 1. maila: puntu 1eko erantzuna 2. maila: 2 puntuko erantzuna 3. maila: 3 puntuko erantzuna 3+ maila: 4 puntuko erantzuna | 0,69 |

Gaitasun maila bakoitzeko itemen adibideak.

2. itema. La abuela Anni está enferma. Se sabe porque...

- A. Es muy lenta en sus movimientos.
- B. Está perdiendo la memoria.
- C. Se ríe muy fuerte y sin motivo.
- D. Está mucho tiempo sentada.

| | |
|---|----------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | B |
| Puntuazioa | Puntu 1 |
| Irakurketa prozesua | Interpretazioa |
| Gaitasun maila | 1. maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 1. mailan | 80,3 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara | 95,1 |
| Diskriminazio-indizea | 0,23 |

15. itema. ¿En el texto se habla de tres animales. ¿Qué tienen en común respecto al desarrollo del ciclo de la vida?

- A. Los tres viven en los huertos.
- B. Todos eliminan plagas.
- C. Los tres contribuyen a la salud del planeta.
- D. Todos son bichos asquerosos.

| | |
|---|-------------------------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | C |
| Puntuazioa | Puntu 1 |
| Irakurketa prozesua | Edukiaren gaineko hausnarketa |
| Gaitasun maila | 2. maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 2. mailan | 78,2 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara | 86,4 |
| Diskriminazio-indizea | 0,31 |

27. itema. El texto está organizado en cinco apartados, cada uno de ellos con su título. ¿Qué pasaría si cambiamos el orden de los apartados?

- A. No pasaría nada, porque el contenido es el mismo. Da lo mismo el orden.
- B. No pasaría nada. Si no se quitan ni añaden palabras, el mensaje sería el mismo.
- C. El texto se modificaría, porque los apartados están ordenados alfabéticamente y hay que respetar siempre el orden alfabético.
- D. El texto se modificaría, porque el primer apartado plantea el problema, los tres siguientes son ejemplos y el último es la conclusión.

| | |
|---|------------------------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | D |
| Puntuazioa | Puntu 1 |
| Irakurketa prozesua | Formaren gaineko hausnarketa |
| Gaitasun maila | 3. maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 3. mailan | 61,5 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara | 56,6 |
| Diskriminazio-indizea | 0,37 |

4. itema. “Debe de parecerle todo muy inhóspito” significa que...

- A. Debe de parecerle desdichado.
- B. Debe de parecerle desapacible.
- C. Debe de parecerle acogedor.
- D. Debe de parecerle hospitalario.

| | |
|---|----------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | B |
| Puntuazioa | Puntu 1 |
| Irakurketa prozesua | Interpretazioa |
| Gaitasun maila | 3+ maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 3+ mailan | 71,1 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara | 45,3 |
| Diskriminazio-indizea | 0,27 |

2.4. Emaitza orokorrak

Estatistikoen taula (Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna)

| | |
|---------------------------------|-------|
| Kopuru osoa | 6.562 |
| Gaitasun proben kopurua | 6.507 |
| Neska kopurua | 3.117 |
| Mutil kopurua | 3.390 |
| Puntuaziorik txikiena | 4 |
| Puntuaziorik handiena | 45 |
| Batez besteko puntuazioa | 33,12 |
| Desbideratze tipikoa | 7,08 |
| Nesken batez bestekoa | 33,92 |
| Mutilen batez bestekoa | 32,38 |
| 1. maila (%) | 10,08 |
| 2. maila (%) | 15,77 |
| 3. maila (%) | 59,70 |
| 3+ maila (%) | 13,45 |

Alderdi azpimarragarriak:


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 45 puntu dituztenak, eta 4 puntu dituztenak.
- Desbideratze tipikoa 7,08koa da, hau da, batez besteko puntuazioaren %21,4; balio ertaina da eta horrek esan nahi du puntuazioak dezente aldentzen direla batez besteko puntuaziotik.
- "Kopuru osoa"-ren eta "Gaitasun proben kopurua"-ren arteko kendurak ematen du ikastetxean ez zeudelako proba egin ez zuten ikasleen kopurua: 55

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

| | Ehunekoak, mailaka |
|-----------------|---------------------------|
| 1. maila | 10,08 |
| 2. maila | 15,77 |
| 3. maila | 59,70 |
| 3+ maila | 13,45 |

Irudikapen grafikoa



Alderdi azpimarragarriak


- Ia 4 ikasletik 3k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.
- 10etik 1ek neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako.
- %15,77 tarteko egoeran daude, eskola mailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

Banaketa, sexuaren arabera

Neskek mutilek baino 1,54 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori arina dela esan daiteke, desbideratze tipikoaren 1/4 baino gutxiago da.


| | Batez besteko puntuazioa |
|------------------------|--------------------------|
| Nesken batez bestekoa | 33,92 |
| Mutilen batez bestekoa | 32,38 |

Irudikapen grafikoa



2.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio orokorren banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa honelakoa izan da banaketa normalarekin (lerro kurbatua) alderatuta:

- Normala baino zertxobait zorrotzagoa edo ez hain laua; puntuazioen pilaketa handiagoa da batez bestekoaren inguruan. *Kurtosia = 0,26*
- Asimetriko negatiboa da (batez bestekoaren ezker aldean eskuinaldean baino balio gehiago daude pilatuta). Fisherren asimetria-koefizientea -0,78 da.

2.6. Ekoizpen idatzia

Ikasleek egindako lan idatzian ezinbesteko hiru alderdi hauek baloratu dira: *Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna*. Puntuazioak emateko ebaluazio irizpideak ondoko hauek izan dira:

| Aurkezpena eta ortografia | Istorioaren koherentzia | Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna |
|--|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Garbi idatzita dago (ez da urraturik...). • Letra argia eta erregularra da. • Marjinak ongi zehazturik daude. • Ortografia. | <ul style="list-style-type: none"> • Egitura argia. • Paragrafoen erabilera. • Bilakaera tematikoa. • Perpausak ideia osoak adierazten dituzte. • Perpausak elkarren artean lotuta daude. • Pertsonaiak eta haien ekintzak. | <ul style="list-style-type: none"> • Perpausen sintaxia. • Aditz-denborak zuzen erabiltzea. • Aditz komunztadura (subjektua-predikatua). • Mendeko perpausak (baleude eta nola dauden eginak). • Adjektibo eta adizlagunen erabilera. • Hizkuntza idatziaren, eta lagunarteko eta ahozko hizkuntzaren arteko aldea |

Gaitasun mailak idazketan: esanahia

Aurreko irizpideak kontuan harturik, idazketa maila hauek zehaztu dira.

1. maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, maila honetako testuen aurkezpena ez da ona. Letra irregularra izan ohi da eta, batzuetan, baita irakurtezina ere. Ortografia akatsak asko dira: muturreko kasuetan hitzak elkaturik ageri dira edo, aitzitik, hitz bera bereizi egiten dute.

Istorioaren koherentzia

Benetako egitura tematiko koherenterik gabeko testuak dira: gauzak kontatzen dituzte aldez aurreko planik gabe, benetako barne-koherentziarik gabe. Ez dago progresio tematikorik eta zaila da narrazioaren aktoreak eta pertsonaiak eta haien ekintzak zein diren bereiztea.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaletik, baieztatu daiteke maila honetako ikasleek ez dituztela oinarrizko ezagutzak menderatzen eta ez dituztela idaztean erabiltzen. Perpausak ez daude ongi eratuak, ezta puntuen bidez bereizirik ere. Komuntadura akatsak egiten dituzte. Ez da ahozko kodearen eta formalagoa behar duen kode idatziaren artean bereizten; idazten dute mintzatutakoaren hitzez hitzeko transkripzioa balitz bezala. Testuetan gramatika akatsak ugari dira.

2. maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, testuen aurkezpena onargarria da. Letra irakurtzeko modukoa izan ohi da. Bost ortografia akatsetatik gora egiten dituzte, testuak laburrak direnean; edo zortzitik gora, testuak luzeagoak direnean.

Istorioaren koherentzia

Maila honetan narrazio testuek nolabaiteko egitura tematikoa izan ohi dute: gauzak kontatzen dituzte, aldez aurretiko planarekin, baina barne-koherentziari dagozkion akats batzuk egiten dituzte. Deskribapen testuetan aurkezpen edo sarrera oso argia egiten dute eta nahiko zehatz deskribatzen dituzte ezaugarri fisikoak zein psikologikoak, baina ez dago behar bezalako bukaera bat: zakarki bukatzen dira (lehenago ere buka zezaketen zein idazten jarraitu, ez dago testuaren bukaeraren eta itxieraren zantzurik).

Maila honetako ikasleek testua ez dute paragrafoetan antolatzen; idazten eta gauzak kontatzen hasten dira eta, bat-batean, zakarki, bukatu egiten dute. Beste batzuetan, berriz, ez dituzte pertsonaiak aurkezten eta pertsonaiak nahasi egiten dituzte. Testuaren barne-kohesioan akatsak egin ohi dituzte: ez dago lokailurik edo gaizki erabilita daude; batzuetan, puntuazioko akatsek testu nahasia sortzen dute.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaetik, esan daiteke maila honetako ikasleek oinarrizko ezagutzak dituztela, nahiz eta arazoak izan idatzi behar dutenean; ez dituzte testuak gainbegiraten. Perpausen egitura oso oinarrizkoa da, sintaxiaren ikuspuntutik begiraturik ongi eratutakoak badira ere. Ia ez dago mendeko perpausik eta gehiegitan jartzen dituzte emendiozko perpausak batzuk besteen segidan. Komunztaduran hutsegiteren bat izan dezakete, baina puntuala izan ohi da eta gehienetan idazkia ez gainbegiratzek sortutakoa eta ez horrenbeste gaitasun gabeziaren ondorio. Ahozko kodearen eta kode idatziaren artean bereizketa egiten da testuan, kutsadura ugari ageri bada ere.

3. maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, testuen aurkezpena ona da. Letra irakurterraza, argia eta erregularra izan ohi da. Bost ortografia akats baino gutxiago egiten dituzte, testuak laburrak direnean; edo zortzi baino gutxiago, testuak luzeagoak direnean.

Istorioaren koherentzia

Maila honetako testuek nolabaiteko egitura tematikoa izan ohi dute: gauzak kontatzen dituzte, aldez aurretiko plan batekin, eta testuak irakurrita antzematen da haien barnekoherentzia onargarria dela. Narrazio testuetan aurkezpen labur bat, istorioaren korapiloa edo garapena eta bukaera izaten dira, nahiz eta batzuetan bukaera pixka bat zakarra izan daitekeen, eta deskribapen testuetan aurkezpena, ezaugarri fisiko zein psikologikoen deskribapena eta bukaera landu samarra.

Testua paragrafoetan antolaturik dago, ez soilik forma aldetik, baita testuaren barne-antolaketaren aldetik ere. Pertsonaiak zehazturik daude eta antzematen da ekintza bakoitza nori dagokion; pertsonaien arteko harremanak badu nola edo halako koherentzia. Perpausak barne-kohesioko baliabideak erabiliz (lokailuak...) elkarrekin ongi loturik daude. Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaetik, maila honetako ikasleek oinarrizko ezagutza gramatikalak menderatzen dituzte eta idaztean erabiltzen dituzte. Testuak gainbegiratu ohi dituzte (testuan ageri diren urratu eta zuzenketa batzuk lan horren ondorio dira). Perpausen egitura

landuagoa da eta sintaxiaren ikuspuntutik ongi eratuta daude perpausak. Badira mendeko perpausak eta ez dira gehiegi batzuk besteen gainean jarritako emendiozko perpausak. Maila honetan jadanik ez dago komunztadura akatsik.

3+ maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, testuen aurkezpena oso ona da. Letra irakurterraza, argia eta oso erregularra izan ohi da. Haien ekoizpen idatzietan oso ortografia akats gutxi dago eta, orobat, tiletak zuzen erabiltzen dituzte. Testuak garbi samarrak dira eta urratuak edo zuzenketak soilik testua gainbegiratzean egindakoak dira.

Istorioaren koherentzia

Maila honetan, narrazio testuek adin hauetarako egitura tematiko oso zehaztua izan ohi dute: narrazio testuetan aurkezpena, istorioaren korapilo edo garapen oso koherentea eta ongi kontatutako bukaera izaten dira, eta deskribapen testuetan sarrera, ezaugarrien deskribapen nahiko zehatza eta testua ixten duen ondorio bat ageri dira. Testua paragrafoetan antolaturik dago, ez soilik forma aldetik, baita testuaren barne-antolaketaren aldetik ere. Pertsonaiak zehazturik daude eta antzematen da ekintza bakoitza nori dagokion; pertsonaien arteko harremanak badu nola edo halako koherentzia. Perpausak barne-kohesioko baliabideak erabiliz (lokailuak...) elkarrekin ongi loturik daude. Testuak argiak, ongi antolatuak eta zentzu guztietan irakurgarriak dira. 3. mailari gehitzen zaio aberastasuna eta barietatea, dela hiztegian, dela hizkuntza baliabideen erabileran. Eta horrek testua arinagoa eta naturalagoa egiten du.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaletik, eskuarki baieztatu daitezke maila honetako ikasleek menderatzen dituztela zikloko oinarrizko ezagutzak eta idaztean erabiltzen dituztela. Testuak gainbegiratu ohi dituzte (testuan ageri diren urratu eta zuzenketa batzuk lan horren ondorio dira). Perpausen egitura aurreko mailan baino landuagoa da eta sintaxiaren ikuspuntutik ongi eratuta daude perpausak. Badira mendeko perpausak eta ez dira gehiegi batzuk besteen gainean jarritako emendiozko perpausak. Argi bereizten dira ahozko kodea eta kode idatzia. Maila hau aurretik bereizten da barne-kohesioko baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia.

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da 28., 29. eta 30. itemen puntuazio zuzenak baturik maila horri dagokion tartean dagoen puntuazioa erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

| | Idazmena gaztelaniaz Puntuazio-tarteak |
|-----------------|---|
| 1. maila | 0-4 |
| 2. maila | 5-7 |
| 3. maila | 8-10 |
| 3+ maila | 11-12 |

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da idazmeneko maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

| | Idazmen maila bakoitzeko ehunekoa |
|-----------------|--|
| 1. maila | 9,7 |
| 2. maila | 30,0 |
| 3. maila | 42,2 |
| 3+ maila | 18,0 |

Alderdi azpimarragarriak

- Ikasleen %60,2k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila eta, beraz, gai dira haien adinari egokitutako testu idatzi bat egiteko.
- Ikasleen %10 inguruk neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako.
- Ikasleen %30 tarteko egoeran dira, testuen ekoizpena hobetu beharra dute.

3. Euskarazko hizkuntza gaitasuna

3.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa

Probak bi zati izan ditu: irakurketa eta idazketa.

Irakurketak bi testu edo estimulu izan ditu, eta horietatik irakurmeneko ondoko galderak atera dira: “*Alfonbra berria*” testutik 10 item atera ziren, eta “*Xaretako leizeak*” testutik 11 item. Osotara, 21 galdera dira, eta horietatik 17k puntu 1eko balioa dute eta 4k, 2 puntukoa; kasu horretan puntu 1eko puntuazio partziala onartzen da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak dira; batzuk oso errazak gertatu dira (%92,2k zuzen erantzun dituzte); beste batzuk, aldiz, zailak dira, eta ikasleen %24k baino ez dituzte ongi erantzun.

21 itemei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuekin daude loturik.

Idazketako ataza idazlan bat izan da, leize batera egindako bisita bati buruzko istorio edo abentura baten narrazioa.

Idazlanean funtsezko hiru alderdi hauek baloratu dira: *Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna*; denek munta bera izan dute puntuazio osoan.

3.6 puntuan idazketaren emaitzak ageri dira, modu bereizian emanak.

Hizkuntza gaitasuneko puntuazio osoa lortu da irakurketako eta idazketako puntuazio osoak baturik, hurrenez hurren, 0,676-rekin eta 0,324-rekin haztaturik.

Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: *tipologia (irekia edo itxia), emandako gehienezko puntuazioa, zailtasun maila eta ebaluatutako prozesua*.

Itemen ordena bera da taulan eta probako koadernotxoan.

| Item zk. | Irekia/ Itxia | Puntuaziorik handiena | Zailtasun-indizea: zuzen erantzundakoen %a | Ebaluatutako prozesua |
|----------|---------------|-----------------------|--|-----------------------|
| 1 | Itxia | 1 | 85,2 | Informazioa bilatzea |

| | | | | |
|----|--------|---|------|---|
| 2 | Irekia | 2 | 80,8 | Informazioa bilatzea |
| 3 | Itxia | 1 | 85,8 | Interpretazioa |
| 4 | Itxia | 1 | 80,2 | Interpretazioa |
| 5 | Irekia | 1 | 82,5 | Ulermen orokorra |
| 6 | Irekia | 1 | 52,7 | Interpretazioa |
| 7 | Itxia | 1 | 92,2 | Interpretazioa |
| 8 | Itxia | 1 | 71,5 | Ulermen orokorra |
| 9 | Irekia | 2 | 47,1 | Interpretazioa |
| 10 | Irekia | 1 | 71,2 | Edukiaren gaineko hausnarketa |
| 11 | Itxia | 1 | 67,4 | Interpretazioa |
| 12 | Irekia | 1 | 44,7 | Interpretazioa |
| 13 | Itxia | 1 | 88,3 | Ulermen orokorra |
| 14 | Irekia | 2 | 36,5 | Informazioa bilatzea |
| 15 | Itxia | 1 | 63,6 | Ulermen orokorra |
| 16 | Itxia | 1 | 74,0 | Informazioa bilatzea |
| 17 | Itxia | 1 | 76,9 | Interpretazioa |
| 18 | Itxia | 1 | 62,8 | Interpretazioa |
| 19 | Itxia | 1 | 43,3 | Interpretazioa |
| 20 | Irekia | 2 | 24,0 | Informazioa bilatzea |
| 21 | Irekia | 1 | 45,3 | Interpretazioa |
| 22 | Irekia | 4 | 66,5 | Aurkezpena eta ortografia |
| 23 | Irekia | 4 | 63,0 | Istoriaren koherentzia |
| 24 | Irekia | 4 | 59,9 | Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna |

22., 23. eta 24. itemak ekoizpen idatzikoak (idazlana) dira.

3.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Hizkuntza gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA

Maila honetako ikasleak gai dira narrazio edo azalpen testu bateko informazio literala ulertzeko. Horretaz gainera, ulermen orokorrik eskatzen ez duten interpretazio-ataza oso errazak zuzen erantzuten dituzte.

Hala ere, zailtasunak dituzte interpretatzea, globalki ulertzea, hausnartzea eta baloratzea eskatzen duten galderari erantzuteko.

Oro har, ikasle horien ekoizpen idatzien aurkezpena ez da ona, ez dute zinez barne koherentziarik eta komunztadura akatsak egiten dituzte.

2. MAILA

Maila honetako ikasleek 1. mailako galderak zuzen erantzuten dituzte. Horretaz gainera, informazioa bilatzeko galderak ere ebazten dituzte, galderak ez direnean horren literalak eta egoera hobeki ulertzea eskatzen dutenean.

Interpretazioko eta hausnarketako ataza errazak ebazten hasten dira.

Hori hala izanik ere, zailtasunak dituzte narrazio edo azalpen testuak globalki ulertzeko, nolabaiteko sakontasunez interpretatzeko eta baloratzeko.

Haien ekoizpen idatzietan, bost ortografia akats baino gehiago daude hamar lerroko.

Testuaren barne-kohesioan akatsak izan ohi dira.

Perpausen egitura oso oinarrizkoa da.

3. MAILA

Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten dituzte informazioa bilatzearekin loturiko galderak (informazio hori literala izan edo ez). Horretaz gainera, testua orokorki ulertzen dute. Interpretazioaren eta edukiaren gaineko hausnarketari dagokionez maila onargarria dute. Gai dira testu bat baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko.

Haien ekoizpen idatzietan bost ortografia akats baino gutxiago daude.

Perpausak batzuk besteekin ongi kateaturik daude.

Maila honetan jadanik ez dago komunztadura akatsik. Argi bereizten dira ahozko kodea eta kode idatzia.

Maila honetan nahiko zuzen erabiltzen dira deklinabidea eta oinarrizko aditz formak.

3+ MAILA

Maila honetako ikasleek, 3. mailako atazak egoki betetzeaz gainera, konplexuagoak direnak ere ebazten dituzte.

Haien ekoizpen idatziak argiak, ongi antolatutakoak eta arlo guztietan irakurtzeko modukoak dira.

Maila hau aurrekotik bereizten da barne-kohesio baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia.

Maila honetan zuzen erabiltzen dira deklinabidea eta oinarrizko aditz formak.

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

| | Euskarazko hizkuntza gaitasuna Puntuazio-tarteak |
|-----------------|---|
| 1. maila | 0-14 |
| 2. maila | 15-19 |
| 3. maila | 20-31 |
| 3+ maila | 32-37 |

3.3. Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraientzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Esate baterako, 7. itema oro har erraza suertatu da, ikasleen %92,2 gai izan baitira planteatutakoa interpretatzeko; 2. itema, informazio bat testutik ateratzea, ez da hain erraza izan; 11. itema interpretazioko ataza zail samarra da; eta 19. itema, hau ere interpretaziokoa, ikasleen %43,3k baino ez du ebatzi.

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta guttizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta itemaren irekia/itxia izaera garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan. Ondoko irizpide orokor hauek erabili dira:

- Erantzun itxiko itema: M_i mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %62k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.

- Erantzun irekiko itema: M_i mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %52k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.

Hurrengo taulan erakusten da nola atxikitzen zaizkien itemak gaitasun mailai (mailaketa), baina modu kualitatibo eta orientatiboan interpretatu behar da, ez baitira beti betetzen aurreko bi baldintza horiek eta nola edo halako malgutasun bat onartu behar baita. Erantzun *partziala* edo *osoa* izan dezaketen itemak maila desberdinei atxikitzen zaizkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

| Item zk. | Mailaketa | Diskriminazio-indizea |
|-----------------|---|------------------------------|
| 1 | 1. maila | 0,24 |
| 2 | 1. maila: puntu 1eko erantzuna 2. maila: 2 puntuko erantzuna | 0,46 |
| 3 | 2. maila | 0,33 |
| 4 | 2. maila | 0,40 |
| 5 | 2. maila | 0,40 |
| 6 | 3+ maila | 0,30 |
| 7 | 1. maila | 0,33 |
| 8 | 3. maila | 0,34 |
| 9 | 3. maila: puntu 1eko erantzuna 3+ maila: 2 puntuko erantzuna | 0,53 |
| 10 | 3. maila | 0,44 |
| 11 | 3. maila | 0,36 |
| 12 | 3+ maila | 0,32 |
| 13 | 2. maila | 0,33 |
| 14 | 3. maila: puntu 1eko erantzuna 3+ maila: 2 puntuko erantzuna | 0,39 |
| 15 | 3. maila | 0,36 |
| 16 | 3. maila | 0,35 |
| 17 | 2. maila | 0,30 |
| 18 | 3. maila | 0,38 |
| 19 | 3+ maila | 0,30 |
| 20 | 3. maila: puntu 1eko erantzuna 3+ maila: 2 puntuko erantzuna | 0,33 |
| 21 | 3+ maila | 0,47 |
| 22 | 3+ maila | 0,59 |
| 23 | 1. maila: puntu 1eko erantzuna 2. maila: 2 puntuko erantzuna 3. maila: 3 puntuko erantzuna 3+ maila: 4 puntuko erantzuna | 0,66 |
| 24 | 1. maila: puntu 1eko erantzuna | 0,67 |

| | | |
|----|---|------|
| | 2. maila: 2 puntuko erantzuna 3. maila: 3 puntuko erantzuna 3+ maila: 4 puntuko erantzuna | |
| 25 | 1. maila: puntu 1eko erantzuna 2. maila: 2 puntuko erantzuna 3. maila: 3 puntuko erantzuna 3+ maila: 4 puntuko erantzuna | 0,24 |

Gaitasun maila bakoitzeko itemen adibideak.

1. itema. Zer esan nahi du “tximista baino azkarrago” esaldiak?

- A. Lasterketa bat egin zutela eta tximistari irabazi ziotela.
- B. Larrabezutik Bilbora oso azkar joan zirela kotxez.
- C. Tximista azkarra dela.
- D. Ziztu bizian etorri zirela alfonbraren gainean.

| | |
|---|----------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | D |
| Puntuazioa | Puntu 1 |
| Irakurketa prozesua | Interpretazioa |
| Gaitasun maila | 1. maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 1. mailan | 62,2 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara | 92,2 |
| Diskriminazio-indizea | 0,51 |

4. itema. Zergatik lagundu nahi zion Anartzek aitari alfonbra erosten?

- A. Alfonbrak oso gustuko zituelako.
- B. Aiorak lagunduko ziola entzun zuelako.
- C. Amak fabore hori eskatu ziolako.
- D. Beti horrela egiten zuelako.

| | |
|----------------------------|----------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | B |
| Puntuazioa | Puntu 1 |
| Irakurketa prozesua | Interpretazioa |

| | |
|---|----------|
| Gaitasun maila | 2. maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 2. mailan | 63 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara | 80,2 |
| Diskriminazio-indizea | 0,30 |

15. itema. Zure ustez, norentzat idatzi da testu hau?

- A. euskal mitologiako ikasleentzat.
- B. goi mailako mendizaleentzat.
- C. eguna edota asteburua pasatzera doazen familientzat.
- D. Zugarramurdiko biztanleentzat.

| | |
|---|------------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | C |
| Puntuazioa | Puntu 1 |
| Irakurketa prozesua | Ulermen orokorra |
| Gaitasun maila | 3. maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 3. mailan | 72,1 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara | 63,6 |
| Diskriminazio-indizea | 0,25 |

12. itema. Zure ustez, goian aipatzen den ibilbidea egiteko, GPS-a beharko dugu? Arrazoitu zure erantzuna.

.....

| | |
|---|--------------------------------|
| Mota | Irekia |
| Erantzuna | Zuzenketa irizpidearen arabera |
| Puntuazioa | Puntu 1 |
| Irakurketa prozesua | Interpretazioa |
| Gaitasun maila | 3+ maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 3+ mailan | 76,8 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, osotara | 44,7 |
| Diskriminazio-indizea | 0,32 |

3.4. Eraitza orokorrak

Estatistikoan taula (Euskarazko hizkuntza gaitasuna)

| | |
|---------------------------------|--------------|
| Kopuru osoa | 1.868 |
| Gaitasun proben kopurua | 1.855 |
| Neska kopurua | 884 |
| Mutil kopurua | 971 |
| Puntuaziorik txikiena | 3 |
| Puntuaziorik handiena | 37 |
| Batez besteko puntuazioa | 23,22 |
| Desbideratze tipikoa | 6,70 |
| Nesken batez bestekoa | 24,35 |
| Mutilen batez bestekoa | 22,19 |
| 1. maila (%) | 10,8 |
| 2. maila (%) | 17,9 |
| 3. maila (%) | 60,6 |
| 3+ maila (%) | 10,7 |

Alderdi azpimarragarriak:


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 38 puntu dituztenak, eta 3 puntu dituztenak.
- Desbideratze tipikoa 6,70ekoa da, hau da, batez besteko puntuazioaren %28,9; handikoa da eta horrek esan nahi du puntuazioak batez besteko puntuaziotik aldentzen direla.
- "Kopuru osoa"-ren eta "Gaitasun proben kopurua"-ren arteko kendurak ematen du ikastetxean ez zeudelako proba egin ez zuten ikasleen kopurua: 13

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharizanak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

| | Ehunekoak, mailaka |
|-----------------|-------------------------------|
| 1. maila | 10,8 |
| 2. maila | 17,9 |
| 3. maila | 60,6 |
| 3+ maila | 10,7 |

Irudikapen grafikoa



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletatik zazpik erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion hizkuntza prozesuak gauzatzeko.
- Hamarretik bat beheko mailan dago eta neurri bereziak behar ditu.
- Ia hamarretik bi tarteko egoeran daude, eskola mailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

Banaketa, sexuaren arabera

Neskek mutilek baino 2,16 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori moderatua dela esan daiteke (desbideratze tipikoaren 1/4 eta 1/3 bitartean dago).


| | Batez besteko puntuazioa |
|------------------------|--------------------------|
| Nesken batez bestekoa | 24,35 |
| Mutilen batez bestekoa | 22,19 |

Irudikapen grafikoa



3.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio globalen banaketa.



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa honelakoa izan da banaketa normalarekin (lerro kurbatua) alderatuta:

- Ez da normala bezain zorrotza edo normala baino lauagoa da; puntuazioen pilaketa txikiagoa da batez bestekoaren inguruan. *Kurtosia = -0,40*
- Asimetriko negatiboa da (batez bestekoaren ezker aldean eskuinaldean baino balio gehiago daude pilatuta). *Fisherren asimetria-koefizientea -0,34* da.

3.6. Ekoizpen idatzia

Ikasleek egindako lan idatzian ezinbesteko hiru alderdi hauek baloratu dira: *Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna*. Puntuazioak emateko ebaluazio irizpideak ondoko hauek izan dira:

| Aurkezpena eta ortografia | Istorioaren koherentzia | Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna |
|---|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Garbi idatzita dago (ez da urraturik...) • Letra argia eta erregularra da. • Marjinak ongi zehazturik daude. • Ortografia, akats kopurua | <ul style="list-style-type: none"> • Egitura argia • Paragrafoen erabilera. • Bilakaera tematikoa • Perpasek ideia osoak adierazten dituzte. • Perpasek elkarren artean lotuta daude. • Pertsonaiak eta haien ekintzak | <ul style="list-style-type: none"> • Perpasek sintaxia • Deklinabidearen eta aditz formen erabilera • Komunztadura • Mendeko perpasek (baleude eta nola dauden eginak) • Hizkuntza idatziaren, eta lagunarteko eta ahozko hizkuntzaren arteko aldea |

Gaitasun mailak idazketan: esanahia

Aurreko irizpideak kontuan harturik, idazketa maila hauek zehaztu dira.

1. maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, maila honetako testuen aurkezpena ez da ona. Letra irregularra izan ohi da eta, batzuetan, baita irakurtezina ere. Ortografia akatsak asko dira: muturreko kasuetan hitzak elkarturik ageri dira edo, aitzitik, hitz bera bereizi egiten dute.

Istorioaren koherentzia

Benetako egitura tematiko koherenterik gabeko testuak dira: gauzak kontatzen dituzte alde aurreko planik gabe, benetako barne-koherentziarik gabe. Ez dago progresio tematikorik eta zaila da narrazioaren aktoreak eta pertsonaiak eta haien ekintzak zein diren bereiztea.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaletik, eskuarki baieztatu daiteke maila honetako ikasleek ez dituztela oinarriko ezagutzak menderatzen eta ez dituztela idaztean erabiltzen. Perpasek ez daude ongi eratuak, ezta puntuen bidez bereizirik ere. Komunztadura akatsak egiten dituzte. Ez da ahozko kodearen eta formalagoa behar duen kode idatziaren artean bereizten; idazten dute mintzatutakoaren hitzez hitzeko transkripzioa balitz bezala. Testuetan gramatika akatsak ugari dira.

2. maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, testuen aurkezpena onargarria da. Letra irakurtzeko modukoa izan ohi da. Bost ortografia akatsetatik gora egiten dituzte, testuak laburrak direnean; edo zortitik gora, testuak luzeagoak direnean.

Istorioaren koherentzia

Maila honetan, narrazio testuek nolabaiteko egitura tematikoa izan ohi dute: gauzak kontatzen dituzte, aldez aurretiko planarekin, baina barne-koherentziari dagozkion akats batzuk egiten dituzte. Ez dute testua paragrafoka antolatzen edo, hala egiten badute, ez dute paragrafoa-ideia egitura erabiltzen. Oro har, ikasleak idazten eta gauzak kontatzen hasten dira eta, bat-batean, zakarki, bukatu egiten dute. Beste batzuetan, berriz, ez dituzte pertsonaiak aurkezten eta pertsonaiak nahasi egiten dituzte. Testuaren barne-kohesioan akatsak egin ohi dituzte: ez dago lokailurik edo gaizki erabilia daude; batzuetan, puntuazioko akatsek testu nahasia sortzen dute.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaetik, esan daiteke maila honetako ikasleek oinarrizko ezagutzak dituztela, nahiz eta arazoak izan idatzi behar dutenean; ez dituzte testuak gainbegirutzen. Perpausen egitura oso oinarrizkoa da, sintaxiaren ikuspuntutik begiraturik ongi eratutakoak badira ere. Ia ez dago mendeko perpausik eta gehiegitan jartzen dituzte emendiozko perpausak batzuk besteen segidan. Komunztaduran hutsegiteren bat izan dezakete, baina puntuala izan ohi da eta gehienetan idazkia ez gainbegiratzeak sortutakoa eta ez horrenbeste gaitasun gabeziaren ondorio. Ahozko kodearen eta kode idatziaren artean bereizketa egiten da testuan, kutsadura ugari ageri bada ere.

3. maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, testuen aurkezpena ona da. Letra irakurterraza, argia eta erregularra izan ohi da. Bost ortografia akats baino gutxiago egiten dituzte, testuak laburrak direnean; edo zortzi baino gutxiago, testuak luzeagoak direnean.

Istorioaren koherentzia

Maila honetan, narrazio testuek nolabaiteko egitura tematikoa izan ohi dute: gauzak kontatzen dituzte, aldez aurretiko plan batekin, eta testuak irakurrita antzematen da haien barne-koherentzia onargarria dela. Testuak baditu aurkezpen laburra, bilbea edo istorioaren garapena eta bukaera, nahiz eta batzuetan zakar samarra izaten den. Testua paragrafoetan antolaturik dago, ez soilik forma aldetik, baita testuaren barne-antolaketa aldetik ere. Pertsonaiak zehazturik daude eta antzematen da ekintza bakoitza nori dagokion; pertsonaien arteko harremanak badu nola edo halako koherentzia. Perpausak barne-kohesioko baliabideak erabiliz (lokailuak...) elkarrekin ongi loturik daude. Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaetik, eskuarki baieztatu daiteke maila honetako ikasleek badituztela oinarrizko ezagutzak eta idaztean erabiltzen dituztela. Testuak gainbegiratu ohi dituzte

(testuan ageri diren urratu eta zuzenketa batzuk lan horren ondorio dira). Perpausen egitura landuagoa da eta sintaxiaren ikuspuntutik ongi eratuta daude perpausak. Badira mendeko perpausak eta ez dira gehiegi batzuk besteen gainean jarritako emendiozko perpausak. Maila honetan jadanik ez dago komunztadura akatsik. Maila honetan nahiko zuzen erabiltzen dira deklinabidea eta oinarrizko aditz formak.

3+ maila

Aurkezpena eta ortografia

Oro har, formari begiratuta, testuen aurkezpena oso ona da. Letra irakurterraza, argia eta oso erregularra izan ohi da. Testuak garbi samarrak dira eta urratuak edo zuzenketa soilik testua gainbegiratzeko egindakoak dira.

Istoriaren koherentzia

Maila honetan, narrazio testuek adin hauetarako egitura tematiko oso zehaztua izan ohi dute: badituzte aurkezpena, bilbea edo istorioa oso koherentearen garapena eta ongi narratutako bukaera, amaieran. Testua paragrafoetan antolatuta dago, ez soilik forma aldetik, baita testuaren barne-antolaketaren aldetik ere. Pertsonaiak zehazturik daude eta antzematen da ekintza bakoitza nori dagokion; pertsonaien arteko harremanak badu nola edo halako koherentzia. Perpausak barne-kohesio baliabideak erabiliz (lokailuak...) elkarrekin ongi loturik daude. Testuak argiak, ongi antolatuak eta zentzu guztietan irakurgarriak dira. 3. mailari gehitzen zaio aberastasuna eta barietatea, dela hiztegiaren, dela hizkuntza baliabideen erabileran. Eta horrek testua arinagoa eta naturalagoa egiten du.

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna

Ikuspuntu gramatikaletik, eskuarki baiezta daiteke maila honetako ikasleek menderatzen dituztela zikloko oinarrizko ezagutzak eta idaztean erabiltzen dituztela. Testuak gainbegiratu ohi dituzte (testuan ageri diren urratu eta zuzenketa batzuk lan horren ondorio dira). Perpausen egitura landuagoa da eta sintaxiaren ikuspuntutik ongi eratuta daude perpausak. Badira mendeko perpausak eta ez dira gehiegi batzuk besteen gainean jarritako emendiozko perpausak. Argi bereizten dira ahozko kodea eta kode idatzia. Maila hau aurrekotik bereizten da barne-kohesio baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia. Maila honetan zuzen erabiltzen dira deklinabidea eta oinarrizko aditz formak.

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da 22., 23. eta 24. itemen puntuazio zuzenak baturik maila horri dagokion tartean dagoen puntuazioa erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

| | Idazmena euskaraz Puntuazio-tarteak |
|-----------------|--|
| 1. maila | 0-4 |
| 2. maila | 5-7 |
| 3. maila | 8-10 |
| 3+ maila | 11-12 |

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

| | Ehunekoa, mailaka |
|-----------------|------------------------------|
| 1. maila | 11,7 |
| 2. maila | 34,6 |
| 3. maila | 43,4 |
| 3+ maila | 10,3 |

Alderdi azpimarragarriak

- Ikasleen %54k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila eta, beraz, gai dira haien adinari egokitutako testu idatzi bat idazteko.
- Ikasleen %12 inguruk neurri bereziak behar dituzte, beheko mailan daudelako.
- Ikasleen ia %35 tarteko egoeran dira, testuen ekoizpena hobetu beharra dute.

4. Matematika gaitasuna

4.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa

Probak 3 estimulu izan ditu eta horietako bakoitzeko 7-11 item jarri dira. Osotara izan diren 28 itemetatik 22k puntu 1eko balioa izan dute, 4k 2 puntukoa eta 1ek 3 puntukoa, eta kasu horietan puntuazio partzialak ere onartu dira.

28 itemei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko matematikako prozesuekin daude loturik. Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: *tipologia (irekia edo itxia)*, *emandako gehienezko puntuazioa*, *zailtasun maila eta ebaluaturiko prozesua*.

Itemen ordena taulan eta probako koadernotxoan, bera da.

| Item zk. | Irekia/ Itxia | Gehienezko puntuazioa | Zailtasun- indizea: zuzen erantzundakoen %a | Ebaluaturiko prozesua * |
|----------|------------------|--------------------------|---|----------------------------|
| 1 | Itxia | 1 | 71,3 | Egoera ulertzea |
| 2 | Itxia | 1 | 42,3 | Egoera ulertzea |
| 3 | Itxia | 1 | 74,8 | Ebazpen matematikoa |
| 4 | Itxia | 1 | 82,0 | Ebazpen matematikoa |
| 5 | Irekia | 1 | 86,6 | Egoera ulertzea |
| 6 | Irekia | 2 | 90,2 | Arrazoitzea |
| 7 | Itxia | 1 | 62,1 | Egoera ulertzea |
| 8 | Irekia | 1 | 72,4 | Ebazpen matematikoa |
| 9 | Itxia | 1 | 60,7 | Ebazpen matematikoa |
| 10 | Itxia | 1 | 64,2 | Arrazoitzea |
| 11 | Irekia | 2 | 67,1 | Ebazpen matematikoa |
| 12 | Irekia | 2 | 68,0 | Arrazoitzea |
| 13 | Itxia | 1 | 39,9 | Ebazpen matematikoa |
| 14 | Itxia | 1 | 53,2 | Ebazpen matematikoa |
| 15 | Irekia | 1 | 69,0 | Ebazpen matematikoa |
| 16 | Itxia | 1 | 78,8 | Ebazpen matematikoa |
| 17 | Irekia | 1 | 44,4 | Ebazpen matematikoa |

| | | | | |
|----|--------|---|------|---------------------|
| 18 | Irekia | 1 | 81,3 | Arrazoitzea |
| 19 | Itxia | 1 | 58,0 | Ebazpen matematikoa |
| 20 | Itxia | 1 | 46,3 | Egoera ulertzea |
| 21 | Itxia | 1 | 88,3 | Arrazoitzea |
| 22 | Irekia | 2 | 56,2 | Egoera ulertzea |
| 23 | Itxia | 1 | 53,7 | Ebazpen matematikoa |
| 24 | Irekia | 3 | 60,6 | Ebazpen matematikoa |
| 25 | Itxia | 1 | 90,6 | Egoera ulertzea |
| 26 | Itxia | 1 | 57,1 | Ebazpen matematikoa |
| 27 | Irekia | 1 | 82,3 | Egoera ulertzea |
| 28 | Irekia | 2 | 51,4 | Ebazpen matematikoa |

* Itemari argien lotutako prozesua hautatu da eta ez da beste prozesu batzuekiko lotura bazterten.

4.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 3+ MAILA |
|--|--|--|--|
| <p>Maila honetako ikasleek matematikako gaitasun-maila apala dute. Oso galdera gutxiri erantzuten diote zuzen. Maila honetako galderarik tipikoena eta estatistikoki adierazgarriena honako hau da: angeluak irekiduraren arabera bereiztea. Kasu hauetan, probako galderaren formatua eta ikasliburuetan izaten diren ariketena oso antzekoak dira.</p> | <p>Maila honetako ikasleak gai dira galdera xumei erantzuteko; galdera horiek gaitasunaren garapenaren oinarritzko maila dira. Adibidez, grafiko bat egitea laguntza eta adibideekin, oso oinarritzko denbora-kalkuluak egitea, oso taula xumeak interpretatzea eta haietatik informazioa ateratzea, planoan simetria ulertzea. Lan horietan guztietan ez dago kalkulu matematikorik (edo kalkuluak egiten badira lehen zikloari dagokion konplexutasun mailakoak dira). Maila horretan bi urrats egin beharreko problemarik ere ez dago, ezta 4. mailako ikasle batek ustez egiten jakin behar dituen arazoitze matematikoak ere.</p> | <p>Maila honetako ikasleek gaitasuna menderatzen dute ikasmaila honetan menderatzea espero den moduan. Aurreko mailetak lanak ebazten jakiteaz gain, ikasle hauek gai dira testuinguru errealeko egoerak eta galderak ebazteko orduan ezagutza jakinak aplikatzeko. Egoera batez jabetzen dira eta hura ulertzen dute, egoera horrek, zenbakizko informazio askorik izan ez arren, maila honetako ikasle batek ustez jakin behar duen arazoitze logiko-matematikoa eskatzen duenean. Era berean, bi urrats egin eta egoera matematiko bat planteatu beharreko problemak ebazten dituzte. Proporzionaltasun egoerak ulertzen dituzte eta zatikizko zenbakiak erabiltzen dituzte; badakite denbora-kalkulu errealak egiten arrunt ohikoak diren egoeretatik abiatuz; gai dira irudi geometrikoak bizitza errealean identifikatzeko; txanponen balioa ezagutzen dute eta ongi moldatzen dira txanponekin.</p> | <p>3. maila eta maila hau ez dira desberdinak. Maila honetan ikasleak aurrekoan baino gehiago menderatzen du gaitasuna. Maila honetan dauden ikasleek 2. eta 3. mailan sartutako atazak menderatzen dituzte. Nolanahi ere, badira azpimarratu beharreko berezitasun batzuk, hala nola, arazoitze matematikoa aldeztuz aurretiko arabera baldintzen egokitzen dutela.</p> |

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazioa erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

| | Matematika gaitasuna Puntuazio-tarteak |
|-----------------|---|
| 1. maila | 0 - 13 |
| 2. maila | 14 - 19 |
| 3. maila | 20 - 31 |
| 3+ maila | 32 - 35 |

4.3. Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraiantzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Esate baterako, 6. itema, oro har, erraza gertatu da (ikasleak gai izan dira tauletako datuak barra-grafikoetan emateko). 16. galdera, eskala bateko puntuaren balioari buruz arrazoitzea eskatzen zuena, ez da hain erraza gertatu; 7. itemak, txirularen luzera zenbatestea helburu izanik, egoera ulertzeko prozesua planteatzen du; eta 2. itemak, berriz, soilik gaitasun handieneko ikasleek ebatz dezaketen geometriako egoera planteatzen du.

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta itemaren irekia/itxia izaera garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan. Ondoko irizpide orokor hauek erabili dira:

- Erantzun itxiko itema: M_i mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %62k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.
- Erantzun irekiko itema: M_i mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %52k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.

Hurrengo taulan erakusten da nola atxikitzen zaizkien itemak gaitasun mailailei (mailaketa), baina modu kualitatibo eta orientatiboan interpretatu behar da, ez baitira beti betetzen aurreko bi baldintza horiek eta nola edo halako malgutasun bat onartu behar baita. Erantzun

partziala edo osoa izan dezaketen itemak maila desberdinei atxikitzen zaizkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

| Item zk. | Mailaketa | Diskriminazio-indizea |
|-----------------|--|------------------------------|
| 1 | 2. maila | 0,27 |
| 2 | 3+ maila | 0,35 |
| 3 | 2. maila | 0,31 |
| 4 | 1. maila | 0,36 |
| 5 | 1. maila | 0,16 |
| 6 | 2. maila: erantzun partziala 3. maila: erantzun osoa | 0,26 |
| 7 | 3. maila | 0,22 |
| 8 | 2. maila | 0,35 |
| 9 | 3. maila | 0,36 |
| 10 | 3. maila | 0,31 |
| 11 | 2. maila: erantzun partziala 3. maila: erantzun osoa | 0,46 |
| 12 | 2. maila: erantzun partziala 3. maila: erantzun osoa | 0,53 |
| 13 | 3+ maila | 0,36 |
| 14 | 3. maila | 0,49 |
| 15 | 3. maila | 0,42 |
| 16 | 2. maila | 0,24 |
| 17 | 3+ maila | 0,41 |
| 18 | 1. maila | 0,23 |
| 19 | 3. maila | 0,16 |
| 20 | 3+ maila | 0,21 |
| 21 | 1. maila | 0,27 |
| 22 | 2. maila: erantzun partziala 3. maila: erantzun osoa | 0,46 |
| 23 | 3. maila | 0,34 |
| 24 | 2. maila: puntu 1eko erantzun partziala 3. maila: 2 edo 3 puntuko erantzuna | 0,47 |
| 25 | 1. maila | 0,37 |
| 26 | 3. maila | 0,41 |
| 27 | 1. maila | 0,30 |
| 28 | 3. maila | 0,48 |

Gaitasun maila bakoitzeko itemen adibideak.

25. itema. Erosi duten esne kutxak barra kodea du. Zer zenbaki osatzen dute azken sei zifrek?


- A. Ehun eta zazpi mila laurehun eta zortzi
- B. Ehun eta zazpi mila laurehun eta laurogei
- C. Ehun eta hirurogeita hamar mila laurehun eta zortzi
- D. Ehun eta hirurogeita hamar mila laurehun eta laurogei



| | |
|---|-----------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | B |
| Puntuazioa | 1 |
| Matematikako prozesua | Egoera ulertzea |
| Gaitasun maila | 1. maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 1. mailan | 63,3 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa | 90,6 |
| Diskriminazio-indizea | 0,37 |

16. itema. Bisitari batek bere denboraren $\frac{3}{4}$ Naturaren Interpretazio Zentroan eman du eta gainerako denbora bazkaltzen. Irudietako zeinek adierazten du hori?

- A. 1. irudiak
- B. 2. irudiak
- C. 3. irudiak
- D. 4. irudiak



| | |
|------------------------------|---------------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | B |
| Puntuazioa | 1 |
| Matematikako prozesua | Ebazpen matematikoa |
| Gaitasun maila | 2. maila |

| | |
|--|------|
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 2. mailan | 69,3 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa | 78,7 |
| Diskriminazio-indizea | 0,24 |

9. itema. Osotara zenbat liburu, CD eta DVD daude gelako apalategian?

- A. 112
- B. 144
- C. 160
- D. 248



- 48 liburu daude
- DVD kopurua liburu kopuruaren herena da.
- CD kopurua liburu kopuruaren bikoitza da.

| | |
|--|---------------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | C |
| Puntuazioa | 1 |
| Matematikako prozesua | Ebazpen matematikoa |
| Gaitasun maila | 3. maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 3. mailan | 68,6 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa | 60,7 |
| Diskriminazio-indizea | 0,36 |

20. itema. Zer irudi geometriko agertzen dira ondoko informazio kartean?

- A. Zirkulua, zirkunferentzia eta karratua
- B. Zirkulua, zirkunferentzia eta laukizuzena
- C. Zirkulua, karratua eta laukizuzena
- D. Zirkunferentzia, laukia eta laukizuzena



| | |
|---|-----------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | B |
| Puntuazioa | 1 |
| Matematikako prozesua | Egoera ulertzea |
| Gaitasun maila | 3+ maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 3+ mailan | 80,1 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa | 46,3 |
| Diskriminazio-indizea | 0,21 |

4.4. Emaitza orokorrak

Estatistikoen taula (Matematika gaitasuna)

| | |
|---------------------------------|--------------|
| Kopuru osoa | 6.507 |
| Gaitasun proben kopurua | 6.499 |
| Neska kopurua | 3.109 |
| Mutil kopurua | 3.390 |
| Puntuaziorik txikiena | 3 |
| Puntuaziorik handiena | 35 |
| Batez besteko puntuazioa | 23,07 |
| Desbideratze tipikoa | 7,02 |
| Nesken batez bestekoa | 23,01 |
| Mutilen batez bestekoa | 23,13 |

| | |
|---------------------|-------------|
| 1. maila (%) | 11,4 |
| 2. maila (%) | 17,6 |
| 3. maila (%) | 60,9 |
| 3+ maila (%) | 10,1 |


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuazioarik altuena 35 izan da eta txikiena 3 puntu.
- Desbideratze tipikoa 7,02koa da, hau da, batez besteko puntuazioaren %30,4; nahiko handia da eta horrek esan nahi du norbanakoen puntuazioak batez besteko puntuaziotik aldentzen direla, aniztasuna handia dela.
- "Kopuru osoa"-ren eta "Gaitasun proben kopurua"-ren arteko kendurak ematen du ikastetxean ez zeudelako proba egin ez zuten ikasleen kopurua: 63

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoak jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

| | Ehunekoak, mailaka |
|-----------------|---------------------------|
| 1. maila | 11,4 |
| 2. maila | 17,6 |
| 3. maila | 60,9 |
| 3+ maila | 10,1 |



Alderdi azpimarragarriak


- Hamar ikasletatik zazpik erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion matematika prozesuak gauzatzeko.
- Hamarretik bat beheko mailan dago eta neurri bereziak behar ditu.
- Ia hamarretik bi tarteko egoeran daude, eskola mailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

Banaketa, sexuaren arabera

Mutilek neskek baino 0,12 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori arina dela esan daiteke (desbideratze tipikoaren 1/4 baino txikiagoa da).


| | Batez besteko puntuazioa |
|------------------------|--------------------------|
| Nesken batez bestekoa | 23,01 |
| Mutilen batez bestekoa | 23,13 |

Irudikapen grafikoa



4. 5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio orokorren banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa honelakoa izan da banaketa normalarekin (lerro kurbatua) alderatuta:

- Ez da normala bezain zorrotza edo normala baino lauagoa da; puntuazioen pilaketa txikiagoa da batez bestekoaren inguruan. *Kurtosia = - 0,45*
- Asimetriko negatiboa da (batez bestekoaren ezker aldean eskuinaldean baino balio gehiago daude pilatuta). *Fisherren asimetria-koefizientea -0,54 da.*

5. Ingeleseko hizkuntza gaitasuna

5.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoa

Proba hiru trebetasunekin lotutako galderek osatu dute: Listening-a edo entzumenaren ulermena 9 galderarekin; Reading-a edo idazmenaren ulermena 15 galderarekin; eta Writing-a edo idazlana: ikasleek landa eremu bateko paisaia erakusten zuen fotograma deskribatu behar izan zuten.

Hiru hizkuntza trebetasun hauek ez dira probako puntuazio osoan berdin puntuatzen; hona taula honetan puntuazio horiek:

| Ebaluatutako trebetasunak | Zenbat balio duen, puntuazio osoarekin alderaturik (%) |
|---------------------------|--|
| Listening-a | %30 |
| Reading-a | %50 |
| Writing-a | %20 |

27 galderei dagozkien lanak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko prozesu desberdinekin lotuta daude. Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: *tipologia (irekia edo itxia), emandako gehienezko puntuazioa, zailtasun maila eta ebaluaturiko prozesua.*

| Item zk. | Irekia/Itxia | Gehienezko puntuazio haztatua | Zailtasun-indizea: zuzen erantzundakoen %a | Ebaluatutako prozesua |
|----------|--------------|-------------------------------|--|-----------------------|
| 1 | Itxia | 1,2 | 91,1 | Informazioa bilatzea |
| 2 | Itxia | 1,2 | 56,1 | Informazioa bilatzea |
| 3 | Itxia | 1,2 | 66,8 | Informazioa bilatzea |
| 4 | Itxia | 1,2 | 46,7 | Informazioa bilatzea |
| 5 | Itxia | 1,2 | 28,6 | Informazioa bilatzea |
| 6 | Itxia | 1,2 | 54,1 | Informazioa bilatzea |
| 7 | Itxia | 1,2 | 53,1 | Informazioa bilatzea |
| 8 | Itxia | 1,2 | 66,5 | Informazioa bilatzea |
| 9 | Itxia | 1,2 | 68,4 | Informazioa bilatzea |
| 10 | Itxia | 1,2 | 95,4 | Informazioa bilatzea |

| | | | | |
|----|--------|-----|------|--|
| 11 | Itxia | 1,2 | 82,9 | Informazioa bilatzea |
| 12 | Itxia | 1,2 | 55,8 | Interpretazioa |
| 13 | Itxia | 1,2 | 88,3 | Informazioa bilatzea |
| 14 | Itxia | 1,2 | 54,1 | Informazioa bilatzea |
| 15 | Itxia | 1,2 | 41,6 | Informazioa bilatzea |
| 16 | Itxia | 1,2 | 44,9 | Informazioa bilatzea |
| 17 | Itxia | 1,2 | 43,9 | Interpretazioa |
| 18 | Itxia | 1,2 | 71,4 | Informazioa bilatzea |
| 19 | Itxia | 1,2 | 42,6 | Interpretazioa |
| 20 | Itxia | 1,2 | 89,0 | Informazioa bilatzea |
| 21 | Itxia | 1,2 | 48,5 | Informazioa bilatzea |
| 22 | Itxia | 1,2 | 56,1 | Informazioa bilatzea |
| 23 | Itxia | 1,2 | 37,0 | Informazioa bilatzea |
| 24 | Itxia | 1,2 | 48,0 | Informazioa bilatzea |
| 25 | Irekia | 2,4 | 60,3 | <i>Aurkezpena eta ortografia</i> |
| 26 | Irekia | 2,4 | 58,7 | <i>Istoriaren koherentzia</i> |
| 27 | Irekia | 2,4 | 53,7 | <i>Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna</i> |

5.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

| 1. MAILA | 2. MAILA | 3. MAILA | 3+ MAILA |
|---|--|--|--|
| <p>Maila honetako ikasleak gai dira literala, agerikoa eta aurkigarria den informazioa ulertzeko. Hala ere, interpretatze-maila jakina duten galderei erantzuteko zailtasunak dituzte. Ez dituzte ulertzen zikloan landutako hitz oso oinarrizkoak. Soilik pertsonaia baten edo fotograma baten deskribapen oso labur eta oinarrizkoa idazteko gai da, eta gramatikako hutsegite asko eginda.</p> | <p>Maila honetako ikasleek egoki erantzuten dituzte 1. mailako galderak, hau da, informazio literala ulertzea eskatzen dutenak. Baina, gainera, testuaren ulermen-maila handiagoa eskatzen duten informazioa bilatzeko galderak ebazten dituzte. Maila honetako hiztegia 1. mailakoa baino zabalagoa da. Hori hala bada ere, testuetan bildutako informazioa interpretatzerakoan zailtasunak dituzte. Ez dira inferentzia konplexuagoak egiteko gai. Pertsonaia bat edo fotograma bat deskribatzeko zailtasunak dituzte.</p> | <p>Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten dituzte informazioa bilatzearekin zerikusia duten galderak (informazio hori literala izan edo ez). Gainera testua globalki ulertzen dute eta gai dira hitzetatik haragoko interpretazioa egiteko. Horretaz gainera, testu eten batean edukiaren banaketa zein den ulertzen dute eta badakite berariazko informazio-mota bat non bilatu. Aurreko mailetan baino hiztegi zabalagoa ulertzen dute eta horrek aukera ematen die egoeren eta ekintzen ulermen-ingurua handitzeko. Gai dira pertsonaia baten edo fotograma baten oinarrizko ezaugarriak deskribatzeko, testuaren ulermena eragozten ez duen akatsen bat egiten badute ere.</p> | <p>Maila honetako ikasleak 3. mailari dagozkion atazak zuzen egiteko gai dira eta, horretaz gainera, eskatzen duten interpretazio mailagatik, hiztegiagatik edo testuaren egitura sintaktikoagatik konplexuagoak diren atazak ebazten dituzte. Gai dira 4. ikasmilari dagokion testu koherente eta zuzen baten bitartez pertsonaia baten edo fotograma baten oinarrizko ezaugarriak deskribatzeko.</p> |

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazioa erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

| | Ingeleseko hizkuntza gaitasuna Puntuazio-tarteak |
|----------|---|
| 1. maila | 0 - 12,99 |
| 2. maila | 13-16,99 |
| 3. maila | 17-30,99 |
| 3+ maila | 31-36 |

5.3. Itemak: informazioa, mailaketa eta adibideak.

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraientzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez, 10. itema oso erraza gertatu da; 18.a ez hain erraza; 22.a zailxea eta, azkenik, 23.a ikasle gaituenek soilik egin dute ongi.

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta itemaren irekia/itxia izaera garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan. Ondoko irizpide orokor hauek erabili dira:

- Erantzun itxiko itema: M_x mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %62k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.
- Erantzun irekiko itema: M_x mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %52k gutxienez erantzun zuzena eman behar dute eta aurreko mailan asmatu duten ikasleak ez dira %40tik gora izan behar.

Hurrengo taulan erakusten da nola atxikitzen zaizkien itemak gaitasun mailei (mailaketa), baina modu kualitatibo eta orientatiboan interpretatu behar da, ez baitira beti betetzen aurreko bi baldintza horiek eta nola edo halako malgutasun bat onartu behar baita. Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluatoriko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute, "Writing" ariketetan gertatzen den bezala.

| | Item zk. | Mailaketa | Diskriminazio-indizea |
|--------------------------|----------|--|-----------------------|
| Listening-a (%30) | 1 | 1. maila | 0,18 |
| | 2 | 3. maila | 0,32 |
| | 3 | 2. maila | 0,23 |
| | 4 | 3. maila | 0,18 |
| | 5 | 3+ maila (goiko aldea) | 0,08 |
| | 6 | 3. maila | 0,23 |
| | 7 | 3. maila | 0,26 |
| | 8 | 3. maila | 0,29 |
| Reading-a (%50) | 9 | 3. maila | 0,30 |
| | 10 | 1. maila | 0,24 |
| | 11 | 2. maila | 0,32 |
| | 12 | 3. maila | 0,34 |
| | 13 | 2. maila | 0,31 |
| | 14 | 3. maila | 0,21 |
| | 15 | 3+ maila | 0,17 |
| | 16 | 3. maila | 0,25 |
| | 17 | 3+ maila | 0,28 |
| | 18 | 3. maila | 0,45 |
| | 19 | 3+ maila | 0,10 |
| | 20 | 1. maila | 0,31 |
| | 21 | 3. maila | 0,20 |
| | 22 | 3. maila | 0,29 |
| | 23 | 3. maila | 0,05 |
| | 24 | 3. maila | 0,20 |
| Writing-a (%20) | 25 | 1. maila: 0,69 puntu 2. maila: 1,36 puntu 3. maila: 2,04 puntu 3+ maila: 2,72 puntu | 0,61 |
| | 26 | 1. maila: 0,69 puntu 2. maila: 1,36 puntu 3. maila: 2,04 puntu 3+ maila: 2,72 puntu | 0,60 |
| | 27 | 1. maila: 0,69 puntu 2. maila: 1,36 puntu 3. maila: 2,04 puntu 3+ maila: 2,72 puntu | 0,60 |

Gaitasun maila bakoitzeko itemen adibideak.

10. itema. John and Nick are...

- A. friends.
- B. neighbours.
- C. brothers.
- D. cousins.

| | |
|---|----------------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | C |
| Puntuazio haztatua | 1,2 |
| Irakurketa prozesua | Informazioa bilatzea |
| Gaitasun maila | 1. maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 1. mailan | 72,9 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa | 95,4 |
| Diskriminazio-indizea | 0,24 |

13. itema. How old is John?

- A. He is 9 years old.
- B. He is very old.
- C. He is 6 years old.
- D. He is 10 years old.

| | |
|---|----------------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | D |
| Puntuazio haztatua | 1,2 |
| Irakurketa prozesua | Informazioa bilatzea |
| Gaitasun maila | 2. maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 2. mailan | 78,5 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa | 88,3 |
| Diskriminazio-indizea | 0,31 |

22. itema. How much ice cream do we need in this recipe?

- A. One teaspoonful.
- B. Half a cup.
- C. One litre.
- D. One large spoonful.

| | |
|---|----------------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | D |
| Puntuazio haztatua | 1,2 |
| Irakurketa prozesua | Informazioa bilatzea |
| Gaitasun maila | 3. maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 3. mailan | 64,9 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa | 56,1 |
| Diskriminazio-indizea | 0,29 |

19. itema. Which kind of sports does Nick enjoy the most?

- A. All sorts of water sports.
- B. Video game sports.
- C. Team sports.
- D. Sports for playing in pairs.

| | |
|---|----------------|
| Mota | Itxia |
| Erantzuna | C |
| Puntuazio haztatua | 1,2 |
| Irakurketa prozesua | Interpretazioa |
| Gaitasun maila | 3+ maila |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa, 3+ mailan | 73 |
| Zuzen erantzundakoen ehunekoa | 42,6 |
| Diskriminazio-indizea | 0,10 |

5.4. Emaitza orokorrak

Estatistikoen taula (Ingelesezko hizkuntza gaitasuna)

| | |
|---------------------------------|--------------|
| Kopuru osoa | 6.551 |
| Gaitasun proben kopurua | 6.490 |
| Neska kopurua | 3.108 |
| Mutil kopurua | 3.382 |
| Puntuaziorik txikiena | 3 |
| Puntuaziorik handiena | 36 |
| Batez besteko puntuazioa | 21,31 |
| Desbideratze tipikoa | 6,60 |
| Nesken batez bestekoa | 22,24 |
| Mutilen batez bestekoa | 20,46 |
| 1. maila (%) | 11,2 |
| 2. maila (%) | 17,5 |
| 3. maila (%) | 63,4 |
| 3+ maila (%) | 7,9 |

Alderdi azpimarragarriak


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuazioak 36 punturen eta 3 punturen artean daude.
- Desbideratze tipikoa 6,60koa da, hau da, batez besteko puntuazioaren %31; horrek esan nahi du norbanakoen puntuazioak batez besteko puntuaziotik aldentzen direla, aniztasuna handia dela.
- "Kopuru osoa"-ren eta "Gaitasun proben kopurua"-ren arteko kendurak ematen du ikastetxean ez zeudelako proba egin ez zuten ikasleen kopurua: 61

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

| | Ehunekoa, mailaka |
|-----------------|--------------------------|
| 1. maila | 11,2 |
| 2. maila | 17,5 |
| 3. maila | 63,4 |
| 3+ maila | 7,9 |

Irudikapen grafikoa




Alderdi azpimarragarriak:

- Hamarretik zazpik 3. maila edo 3+ maila erdietsi dute; gai dira beraien adinari dagozkion hizkuntza prozesuak gauzatzeko.
- Hamarretik batek neurri bereziak behar ditu, beheko mailan dagoelako.
- Ia hamarretik bi tarteko egoeran daude, eskola mailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.
-

Banaketa, sexuaren arabera


Neskek mutilek baino 1,78 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori moderatua dela esan daiteke (desbideratze tipikoaren 1/3 eta 1/4 bitartean dago).

| | Batez besteko puntuazioa |
|------------------------|--------------------------|
| Nesken batez bestekoa | 22,24 |
| Mutilen batez bestekoa | 20,46 |



5.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio globalen banaketa.



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa honelakoa izan da banaketa normalarekin (kurba) alderatuta:

- Ez da normala bezain zorrotza edo normala baino lauagoa da; puntuazioen pilaketa txikiagoa da batez bestekoaren inguruan. *Kurtosia = -0,75*
- Apur bat asimetrico negatiboa da (batez bestekoaren ezker aldean eskuinaldean baino balio gehiago daude pilatuta). *Fisherren asimetria-koefizientea -0,05 da.*

6. Aldagai sozioekonomiko etra kulturala (ISEKa)

Edizio honetan ikasleek aldagai soziokultural eta ekonomikoen gaineko galdera-sorta bete dute eta hartatik atera da ISEK indize sozioekonomiko eta kulturala kalkulatzeko informazioa.

6.1 ISEKa

Galdera-sortaren xede nagusia da ISEK indize sozioekonomiko eta kulturala egiteko informazioa biltzea. Indize honek kontuan hartzen ditu nazioarteko azterlanetan (PISA proiektua) eta Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalak autonomia erkidegoekin elkarlanean egindako ebaluazio diagnostiko orokorretan erabilitako aldagai berak.

Indizea prestatzeko aldagaiak ondokoak dira:

1. Gurasoen ikasketa-maila (gurasoetako edozeinek duen handiena hartzen da kontuan).
2. Gurasoek egiten duten lana (gurasoetako edozeinen lan-kategoriarik handiena hartzen da kontuan).
3. Etxean dituzten zenbait elementu (galdera-sortako 12. galdera). Lau hauek hartu dira kontuan: *ordenagailu eramangarri bat; mahai gaineko ordenagailu bat; entziklopediak eta kontsultarako liburuak, ikasketetan laguntzen dizutenak; eta aldizkari espezializatuak (informatikakoak, naturakoak, literaturakoak, etab.).*
4. Etxean dituzten irakurketa liburuak.

Lau aldagai horiei pisu bera eman zaie eta ikasleei esleituriko puntuazioak eraldatu egin dira, batez bestekoa 0 eta desbideratze tipikoa 1 dituen banaketa normalaren arabera eta, hartara, 0 izanen da Nafarroaren batez bestekoa. Ikastetxe bakoitzari ISEKeko balio bat esleitu zaio; hots, ikastetxe horretako ikasleen puntuazioen batez bestekoa. Ikastetxeek -2,3 eta +1,5en arteko ISEK balioak dituzte; horrek agerian uzten du ikastetxeen batez besteko baldintza sozioekonomikoak askotarikoak direla.

Ebaluazio azterlan guztietan egiaztatzen ari da ikasleek probetan duten errendimenduaren eta haien maila soziokulturalaren artean korrelazio moderatua dagoela. Txosten honetan ematen dira ikastetxeetako batez besteko puntuazioen eta batez besteko ISEK balioen arteko korrelazioak, gaitasun bakoitzaren arabera banatuta, eta aldagai horien arteko

erregresio-grafikoak. Erregresio-grafikoak aztertu ondoren, hona hemen emaitza orokor hauek:

- Errendimenduaren eta ISEKaren arteko korrelazio-indizeak 0,56 - 0,49 - 0,50 eta 0,58 dira Gaztelania, Euskara, Matematika eta Ingeles gaitasunetarako, hurrenez hurren. Horrek esan nahi du nola edo halako korrelazioan daudela ISEKa eta errendimendua.
- Erregresio-zuzenak: ISEK-Errendimendua izeneko erregresio-zuzenak malda positiboa dute. Horrek esan nahi du ISEKa handitu ahala batez besteko errendimendua ere gora egiten duela. Espero izatekoa den eraginaren intentsitatea gaitasun batetik bestera aldatzen da: ISEKaren balioa igotzen den unitate bakoitzeko ikastetxeko batez besteko puntuazioa 43,6 - 61 - 42,3 eta 61,1 puntu igotzen da, hurrenez hurren, gaitasun hauetan: Gaztelania, Euskara, Matematika eta Ingeles gaitasunetan. Datu hori *gradiente* terminoarekin agertzen da hurrengo tauletan.
- ISEKak ikastetxeen batez bestekoen arteko bariantzaren edo aldean parte bat azaltzen du. Ondoko biderkadurak ematen du bariantza azaldua: $100 * R^2$, non R^2 erregresio-grafikoetan ageri den determinazio-koefizientea den; biderkadura hori gaitasunaren arabera aldatzen da: %31,3 - %23,0 - %24,2 - %33,5 da Gaztelania, Euskara, Matematika eta Ingeles gaitasunetan, hurrenez hurren.

Esan behar da ISEKa ez dela errendimendua azaltzen duen aldagaia, baina aldagai iragarle modura erabiltzen dela, hau da, ikastetxeei puntuazioak eman dakizkieke beren ISEKaren arabera eta gero ikastetxeak lortutako balio hori benetan lortutako emaitzarekin konparatu. Ikastetxeetako txostenetan ikastetxeko puntuazioa errendimenduaren eta ISEKaren arteko erregresio-grafikoan irudikatu da eta, horri esker, lortutako puntuazioa ISEK balioaren arabera iragarritakoarekin erka dezakegu. Grafiko horretan ikastetxeek duten posizioari dagokionez, 3 kasu desberdin ditugu:

- o Erregresio-zuzena baino gorago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko handiagoa lortu dutenak.
- o Erregresio-zuzena baino beherago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko txikiagoa lortu dutenak.

- Erregresio-zuzenean berean dauden ikastetxeak: iragarritako puntuazioa lortu dutenak.

Grafiko hauetako informazioak ikastetxeen emaitza orokorrak testuinguruan kokatzen ditu, ikastetxeko ikasleen batez besteko ezaugarri soziokulturalen arabera, eta haien emaitzak Nafarroako batez bestekoarekin modu justuagoan konparatzeko aukera ematen du. ISEKa 0 baino handiagoa duen ikastetxe batek batez besteko puntuazioa (500 puntu) baino puntuazio handiagoa lortu beharko luke eta ISEKa 0 baino baxuagoa duen ikastetxe batek 500 puntutik beherako batez besteko puntuazioa lortzea espero izatekoa da. Baina ikusten ari gara ez dela beti iragarpen generiko hori betetzen, eskolako errendimenduan izaten baitira beste aldagai batzuk, hala nola, norberaren lana, ikasteko estrategiak, familiako itxaropenak, irakasleen itxaropenak, etab.


Ikastetxe bakoitzak dituen ISEK balioa eta erregresio-zuzenarekiko kokapena gorabehera, guztietan hobetu daiteke lortutako emaitza, bi aldagai horien arteko erlazioa ez baita determinista edo funtzionala; izan badira ikasleen errendimenduan eragiten duten beste aldagai batzuk. Ondorio horretara iritsi gaitzake erregresio-grafikoetan ikusten baitugu ISEK bera duten ikastetxeek emaitza desberdinak lortzen dituztela eta, beraz, ekitate desberdina dutela (ekitate da ikasleen maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoagatik sortutako hasierako desabantailak konpentsatzeko gaitasuna). Ikastetxeko zer aldagaik eragiten duten modu batera edo bestera ikertzea interesgarria da ikastetxean berean hobekuntza neurriak hartzeko. Hala eginez gero, hezkuntza sistema osoa hobetuko litzateke.

6.2 Erregresio-zuzenak

Ikastetxeen tamaina askotarikoa denez (1-115 ikasle), erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ikastetxe bakoitzaren datuak haztatuz, ikastetxe horietako bakoitzean ebaluatutako mailan probak egin dituzten ikasleen kopuruaren arabera. Haztapan horrek grafikoetan azaldutako koefizienteak adierazgarriago egiten ditu eta, beraz, ondorio fidagarriak ateratzen laguntzen du.

Jarraian, gaitasun bakoitzerako grafikoak prestatu dira. Haietako bakoitzean puntu bakoitza ikastetxe bat da eta erdiko puntua (0-500) Nafarroako batez bestekoari dagokiona da.


Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna: batez besteko puntuazioaren erregresio-grafikoa, ikastetxez ikastetxe



Gaztelaniazko hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 270 puntukoa da eta ISEKaren arteko alderik handiena 3,8 puntukoa da.

| | |
|---|--------------------------|
| R² determinazio-koefizientea | 0,313 |
| Azaldutako bariantzaren (100*R²) ehunekoa (%) | %31,3 |
| Gradientea | 43,6 puntu/ISEK unitatea |
| R korrelazio-koefizientea | 0,56 |


Euskarazko hizkuntza gaitasuna: batez besteko puntuazioaren erregresio-grafikoa, ikastetxez ikastetxe



Euskaraz hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 260 puntukoa da eta ISEKaren arteko alderik handiena 3 puntukoa da.

| | |
|---|------------------------|
| R² determinazio-koefizientea | 0,23 |
| Azaldutako bariantzaren (100*R²) ehunekoa (%) | %23 |
| Gradiente | 61 puntu/ISEK unitatea |
| R korrelazio-koefizientea | 0,49 |


Matematika gaitasuna: batez besteko puntuazioaren erregresio-grafikoa, ikastetxez ikastetxe



Matematika gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 304 puntukoa da eta ISEKaren arteko alderik handiena 3,5 puntukoa da.

| | |
|---|--------------------------|
| R² determinazio-koefizientea | 0,242 |
| Azaldutako bariantzaren (100*R²) ehunekoa (%) | %24,2 |
| Gradiente | 42,3 puntu/ISEK unitatea |
| R korrelazio-koefizientea | 0,50 |

Ingeleseko hizkuntza gaitasuna: batez besteko puntuazioaren erregresio-grafikoa, ikastetxez ikastetxe




Ingeleseko hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 275 puntukoa da eta ISEKaren arteko alderik handiena 3,8 puntukoa da.

| | |
|---|--------------------------|
| R² determinazio-koefizientea | 0,335 |
| Azaldutako bariantzaren (100*R²) ehunekoa (%) | %33,5 |
| Gradiente | 61,1 puntu/ISEK unitatea |
| R korrelazio-koefizientea | 0,58 |

6.3 ISEKaren banaketa

Grafikoan norbanakoaren edo ikaslearen ISEKaren banaketa ageri da.



Alderdi azpimarragarriak

ISEKaren banaketa honelakoa izan da banaketa normalarekin (kurba) konparatuta:

- Ez hain zorrotza edo zapalagoa da; puntuazioen pilaketa txikiagoa da batez bestekoaren inguruan. *Kurtosia = -0,64*
- Asimetriko negatiboa da (batez bestekoaren ezker aldean eskuinaldean baino balio gehiago daude pilatuta). *Fisherren asimetria-koefizientea -0,22 da.*
- 279 ikaslek (%4,38) ISEK indizearen puntuaziorik altuena dute.
- Banakako ISEK aldagaia -2,8 eta 1,8 artean dago.